

# TOLETXE taberna: Nahi eta ezina

**P**roiektu hau izango da, dudarik gabe, Elgoibarko Izarraren 40 urteotako historiako kronikarik beltzena.

2000ko apirilean ilusio eta helburu handiekin ekin zion Elkartek Toletxe proiektuari. Izan ere, asmoa ez zen, besterik gabe, taberna bat zabaltzea. Herritarrentzat bilgune bat prestatzea zen helburua; lagun-giroa, euskara eta euskal kultura bilduko zituen espazio bat antolatu nahi zen.

Eta helburua lortzeko intentzioarekin, hamaika jarduera antolatu ziren bi urtean:

a.- Kultur jarduerak: kontzertuak eta diapositiba-emanaldiak izan ziren, batez ere, jarduera garrantzitsuenak. Hamaika kontzertu antolatu ziren, eta herriko zein erbesteko musikariak eta taldeak pasa ziren Toletxeko oholtzatik. Diapositiba-emanaldiek, berriz, oso-oso estimazio polita izaten zuten. Hilean behin prestatzen ziren, eta jende asko eta asko hurreratzen zen Toletxera. Bestalde, maila txikiagoan, elkarrizketak, ikuskizunak eta poesia-emanaldiak ere eskaini ziren.

b.- Jatorduak: Inauterietan, Txiki Egunean, Baserritar Egunean eta beste egun batzuetan jai-giroko jatordu bereziak antolatzen ziren.

•120•

Baina Toletxeko atea zabaltzeko arduradunak gauzak ez zihoazela nahi eta pentsatu bezala. Batetik, Toletxe gaineko bizilagunekin hasiera-hasieratik izan zituzten arazoak. Eta, bestetik, jendea ez zen nahi eta behar beste hurreratzen Toletxera. Laster konturatu ziren ez zutela proiektuarekin asmatu.

Eta hasieran argia eta ilusioa zena, gris eta etsipen-kolorea hartzen hasi zen. Saiatu ziren handik eta hemendik soluzioren bat topatzen, baina alferrik izan zen.

Azkenean, 2002ko abenduaren 31n, Toletxeko atea itxi egin zituzten betiko. Pena handiz, baina ez zuten izan beste irtenbiderik.

Baina arazoak ez ziren Toletxeko atea itxitakoan amaitu. Diru-zuloa handia zen eta zailtasun handiak izan ziren aurrera egiteko.

Baina elkarte baten indarra eta erreakziorako gaitasuna momentu zailetan erakutsi behar omen da. Eta, batzuen eta besteen laguntzarekin, bizirik irauteko besteko indarra eta kemena atera da. 2002ko udan, Toletxe hartzeko presteuden herritar batzuk azaldu ziren, eta Toletxeko giltzak eskuz aldatu ziren.

Justu-justu, baina Elkartek salbatzea lortu zuen. Dena bertan behera geratzeko arriskua ere izan zen, baina, azkenean, 40 urteko historiak ez du etenik izango.

*TOLETXE proiektuaren asmoa ez zen, besterik gabe, taberna bat zabaltzea. Herritarrentzat atsegina izango zen bilgune bat prestatzea zen helburua; lagun-giroa, euskara eta euskal kultura bilduko zituen espazio ludiko bat eraiki nahi zen.*



TOLETXEK ez zuen funtzionatu, baina gauza finak antolatu ziren.



Diapositiba emanaldiek, adibidez, jende asko erakartzen zuten.



Baina Toletxe taberna bat zen, juergarako eta ondo pasatzeko espazioa.